

BAZTANGO ELKARTEEK 2020. URTEAN EGINEN DITUZTEN KULTUR JARDUERETARAKO  
ETA EKIPAMENDURAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

Baztango elkarteek antolatzen dituzten kultur jarduerak eta dituzten ekipamenduak babesteko lehia irekian dirulaguntzak emateko oinarriak erabaki ditu Udalak.

Deialdi honetarako diru-kopurua, gehienez ere, **22.590 eurokoa da, 2020. urteko aurrekontuan dagoen 1-3340-489000 “Kultur elkarteen diru-laguntzak” kontu-sailean jaso.** Aurrekontu-zuzkidura 1-3340-4890001 osoa agortuz gero, Baztango Udalak 1-3340 4890000 kontu sailera zuzenduko du .

**1. Xedea.**

**1.1. Kultur jarduerak antolatzeko** dirulaguntza ematea, betiere, ondoko ezaugarri hauek badituzte:

- a) Euskararen erabilerari laguntzen diotenak izatea.
- b) Formakuntzak (ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak...).
- c) Sormen lanak (erakusketak...).
- d) Artistikoak (antzezlanak, bideo emanaldiak, kontzertuak...) edo antzeko izaera duten bertze batzuk.
- e) Herritar guziendako irekiak izatea.

1.1.1. Deialdi honetatik kanpo geldituko dira ondoko jarduerok:

- a.–Hezkuntza programetan aurreikusitako edo horiei lotutako irakaskuntza-jarduerak.
- b.–Kirol-jarduerak.
- c.–Gizarte-laguntzakoak.
- d.–Udalerritik kanpo egiten direnak.
- e.–Nafarroako Gobernuak edo bertze erakunde batzuek diruz erabat lagunduak.
- f.–Egoitza edo lokalak egokitze lanak edo hirigintza arloko bertze edozein lan.
- g.–Funtzionamendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, langileen nominak...); mantenu gastuak (bazkariak, afariak, ahamenak), kilometrajea eta plazako musika taldeak (orkestrak)
- h. -Ezaugarri sexistak, arrazistak, eta indarkeriakoak barne hartzen dituzten jarduerak.
- i.–Udal eskaintzarekin lehiatuko diren jarduerak.
- j.- Elkarteek beste erakunde batzuei diruz laguntzen dizkieten jardueren gastuak

1.1.2. Hauek izanen dira diruz lagunduko direnak:

- a) Antolakuntza. Kultur proiektua egiteak eta garatzeak zuzenean eragiten dituen gastuak baino ez dute dirulaguntza jasoko. Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu bezala, ez osorik ezta zati batean ere, erakunde eskatzailearen egitura kudeatzeak eragindako gastuak (langileen gastuak, lokalak mantentzeko gastuak, egitura funtzionala mantentzeko gastuak...).

*COVID 19 pandemiaren krisialdia dela eta, osasun-agintariak kultur jarduerak antolatzeko derrigorrezko edo beharrezkoak diren materialak/zerbitzuak erosteko gastuak onartuko dira.*

Kultura-jarduera garatzeko egindako inbertsioen gastuak hurrengo atalean (1.2.) arautzen diren irizpideen arabera baloratuko dira.

1.2. COVID-19 pandemiak sortutako krisiari aurre egiteko neurri gisa, **hornikuntza edo ekipamenduaren hobekuntzarekin laguntzea**. Material horrek zalantzarik gabe beren sorrerako estatutuetan jasotako xedearekin eta jarduerarekin lotura izan behar du. (Eranskina V)

## **2. Betebeharrak.**

Diru-laguntza hauen onuradunek ondoko betebeharrak hauek dituzte:

- 1.- Irabazi asmorik gabeko elkarte izatea.
- 2.- Zerga egoitza eta helbide soziala Baztanen izatea.
- 3.- Zerga eta Gizarte Segurantzako ordainketa egunean izatea eta Baztango Udalarekin zorrik ez izatea.
- 4.- Ezin izanen dira onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako egoeraren batean dauden erakundeak. III. eranskinean jasotakoaren arabera (eskakizun: 4).

Onuradunek baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Betebeharra 1, elkartearen estatutuaren aurkezpena. Baztango Udalak agiri horiek jada bere eskuetan baditu, nahikoa izanen da legezko ordezkariaren aitortzea, non adieraziko baita agiri horiek ez direla aldatu. III eranskina ikusi.

**3. Deialdia eta izapidea.** Eskabideak behar bezala beterik, Baztango Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira, astelehenetik ortziratera, 9:00etatik 14:00etara edo telematikoki, Baztango Udalaren erregistro elektronikokoaren bidez (<https://sedeelectronica.baztan.eus/eu/introduccion/>) edo edozein erregistro ofizialean.

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 13 arte izanen da, egun hori barne.

Deialdian aurkezteak oinarri hauek onartzea dakar eta eskabideak emandako ereduaren arabera bete beharko dira (Eranskina I). Jarduerak 2019ko azaroaren 2tik 2020ko azaroaren 8ra bitartean egingen dira, biak barne.

Diru-laguntzak emateko prozedura antolatze eta bideratzeko organo eskuduna Alkatetza edo honek ahalmen hori eskuordetzan eman dion organoa izanen da.

Balorazioa. Eskabideen ebazpen-proposamena egiteko eskumena izanen duen balorazio-batzordea honako hauek osatuko dute: kultura zinegotziak, kultura teknikariak eta talde politiko bakoitzak izendatutako zinegotzi batek.

Era berean, balorazio-batzordeak haren kide ez diren teknikarien aholkularitza eskatu ahal izanen du.

## **4. Diru-laguntza ematea.**

Emanen den gehieneko zenbatekoa ez da diruz laguntzen ahal diren eta onartu diren gastuen %75 baino gehiago izanen.

Dena dela, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 6000 € baino gehiago jaso deialdi bakoitzeko.

Baztango Udalak, kasu zehatz bakoitza kontuan hartuta, egokitzen jotzen duen bertze edozein dokumentazio osagarri eskatu ahal izanen dio eskatzaileari, aurkeztutako eskaeraren balorazioa egiteko.

Dirulaguntza eman baino lehenago, behar izanez gero, batzordeak eskatzaileari deitu ahal izanen dio honek behar dituen azalpenak eman ditzan.

Udalak onartutako diru-laguntza ordainketa bakarrean emanen du, gastuak justifikatu ondoren: burututako jardueraren oroitidazkia edo memoria (Eranskina II), jarduera egiteko erabili diren bertze dirulaguntzen edo bertzelako diru-sarreraren gaineko erantzukizun-aitorpena.

Gastuen justifikazioa aurkezteko epea 2020ko azaroaren 13 arte izanen da, egun hori barne.

Onartutako gastuen %100 justifikatuko da, ez Baztango Udalak emandako dirulaguntza kopurua bakarrik. Gastuak justifikatuko dira kultur elkarlearen izenean dauden jatorrizko fakturen bidez; hauek, behin egiaztatu eta zigilatu ondoren, dirulaguntzaren eskatzaileari bueltatuko zaizkio. Faktura horietan bilduko dira legeek eskatzen dituzten datu guztiak eta baita jarduera edo zerbitzuaren deskripzio zehatza ere.

Hartu-agiriak onartuko dira bertze modu batez egiaztatu ezin diren gastuak zuritzeko bakarrik, eta, edonola ere, hartu-agiria sinatzen duen pertsona ezin izanen da enpresaria edo profesionala izan; hala balitz, faktura egin eta ematera behartuta bailegoke. Hartu-agiriak datu hauek bildu behar ditu: jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-abizenak, IFZa eta helbidea; ekintza edo zerbitzuaren deskripzio zehatza; guztizko prezioa, eta tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

Ematen den dirulaguntza bateraezina izanen da Baztango Udaleko bertze dirulaguntzekin, eta bateragarria izanen da bertze administrazio publiko batzuek, erakunde publiko edo pribatuak eta norbanakoek, naziokoek zein atzerrikoek, ematen dituzten bertzelako dirulaguntzekin. Haien zenbatekoak, bakarrik edo denak baturik, ezin izanen du behin ere gainditu egin beharreko jardueraren kostua. Diru-sarreraren eta gastuen justifikazioa aztertutakoan, diru-sarrerak gastuak baino handiagoak direla ikusten bada, Baztango Udalak emandako dirulaguntzari gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko dio.

Ekitaldi batean dirulaguntza jasotzeak ez du ondoko deialdietan dirulaguntza jasotzeko inolako eskubiderik sortuko.

## **5. Irizpideak.**

1.1 oinarrian ezarritakoaren arabera eskatutako laguntzetan, **-Kultur jarduerak antolatze**ko -honako hauek baloratuko dira:

1.–Jarduera tokiko kulturari lotua izatea lehenetsiko da. %10

2.–Euskararen erabilera eta sustapena bultzatzea. %10

3.–Herritarren parte hartzea baloratuko da. Borondatezko lana kontuan hartuko da. %10 .

4.–Jarduera erakunde eskatzaileak berak eta haren kideek antolatua eta burutua izatea. %30 .

5. Baztanen egoitza soziala duten erakunde desberdinen arteko elkarlana baloratuko da. %10.

Entitate batek antolatzaile gisa agertu behar du, eta gainerakoek parte hartzaile gisa. Elkarre antolatzaileak jarduerari dagokion dirulaguntza jasoko du.

Laguntzaren eskabidean, entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen konpromisoak adierazi behar ditu, baita haietako bakoitzagatik aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa ere. (IV Eranskina )

6.–Elizondotik kanpo egiten diren ekitaldiak, Baztango gainerako herrietan egiten direnak alegia, baloratuko dira. %10 .

1.2 oinarrian xedatutakoaren arabera eskatutako laguntzetan,-**Ekipamendua** - honako hauek baloratuko dira:

Inbertsioaren xedearen arabera

a) Jarduera burutzeko ekipamendu espezikoa (jantziak, musika-tresnak, partiturak...) %50.

b) Arte eszenikoekin, argiztapen eta soinuarekin zerikusia duten inbertsioak egitea %30.

c) Eskuragarritasun unibertsalarekin zerikusia duten inbertsioak egitea. Inklusio eta berdintasunezko parte-hartzea. %40.

Kultur erakunde batek baino gehiagok batera aurkeztutako eskabideek eta materiala partekatuko dutenek %20 (VII eranskina)

## **6. Udalaren betebeharrak.**

Diruz lagundutako jarduerak agendan sartzea, betiere antolatzaileek epearen barnean horren berri ematen badute. Udalak bere materialak, baliabideak eta lokalak erabiltzen utzi behar ditu.

## **7. Onuradunaren betebeharrak.**

Dirulaguntzak jasotzen dituztenek honako betebeharrak izanen dituzte:

–Dirulaguntzen onuradunek jasotako laguntza eman diren xedeetarako erabili behar dute eta hala izan dela agiriaren bidez ziurtatu.

–Onuradunek behin proiektua akituz gero, jardueraren oroitidazkia edo memoria (II eranskina) balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak) eta jarduera egiteko izandako gastuen frogagiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak) aurkeztu beharko dituzte, 2019ko azaroaren 7a baino lehen.

– Onuradunek Baztango Udalarari jakinarazi beharko diote diruz lagun daitezkeen jarduerak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen zenbatekoa lortu dutela.

–Onuradunek indarrean dagoen araudia bete beharko dute, batez ere Baztango Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza.

–Onuradunek dirulaguntza jaso duten jardueren publizitate eta hedapenerako Baztango Udalaren ikurra erabili beharko dute.

–Onuradunek programaren garapenean gertatzen den edozein gorabehera, gertatzen den unean berean jakinarazi beharko diote Baztango Udalarari.

Oinarrietan aurreikusitako betebeharren bat ez betetzeak laguntzaren baliogabetze osoa edo haren zati batena ekarriko du.

*- Hartutako ekipamendua Baztango Udalaren esku jartzeko konpromisoa, entitatea jarduerarik gabe geratuz gero edo deseginez gero, entitateak hura erosteko diru-laguntza eman badu, diruz lagundutako gastuaren portzentajea baloratu ondoren. (Eranskina VI)*

## **8. Dirulaguntzaren itzulketa.**

Dirulaguntzak emateko ebazpena baliorik gabe utziko da eta jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira

dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren II. tituluko I. eta II. kapituluetan araututako kasuetan eta ezarritako moduan.

## **9. Arau-hausteak.**

Diru-laguntzen eta laguntza publikoen arloko arau-hausteak eta zehapenak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko dira.

## **10. Errekurtsoak.**

Deialdiak agiri honek bildutako baldintzei jarraituko die; agiriak ez bildutakoari dagokionez, ondoko arauei jarraituko die: Nafarroako Tokiko Administrazioaren Foru Legea, Nafarroako Tokiko Ogasunen Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoaren Foru Legea eta, osagarri gisa, Aurrekontuen gaineko Lege Orokorra, dirulaguntzak arautzen dituen estatu mailan.

Oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio egintzen aurka errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahalko da:

1.–Jakinarazpen hau jaso eta hurrengo hilabetean eta aukeran, berraztertzea, hura egin zuen udal organoari zuzendua (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena). Berraztertze errekurtsoa aurkezten bada, ezin da ez gora jotzekorik ez administrazioarekikorik aurkeztu, harik eta lehenbizikoa ebatzi edo ustez ezesten den arte. Berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren kontra ezin izanen da errekurtso hori bera berriz aurkeztu.

2.–Hilabeteko epean, jakinarazpenetik hasita, gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua (uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea). Errekurtso hau aurkezten bada, ez da administrazioarekikorik aurkezten ahalko, harik eta gora jotzekoa ebatzi edo ustez ezesten den arte.

3.–Bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, jurisdikzio horretako organo eskudunari zuzendua (uztailaren 13ko 29/1998 Legea).

## **11. Dirulaguntzen araudia.**

Dirulaguntza hauen lege oinarria ondoko hauek dira: oinarri hauek eta hauek ez ezik, dagokion urterako Baztango Udalaren aurrekontua betearazteko oinarriak; 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Toki-Administrazioaren gainekoa; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena, eta horiekin bat datorren gainerako legeria.

I Eranskina (Eskabidea)

II Eranskina (Memoria)

III. Eranskina (Erantzukizunpeko adierazpen)

IV Eranskina (Elkarteen arteko akordioa)

V Eranskina (Ekipamendua erosteko dirulaguntza eskaera)

VI Eranskina (Udalerako materialeko antolamenduaren konpromisoa)

VII Eranskina (Ekipamendurako elkartearen arteko akordioa)